

INFORMAZIO PUBLIKOA
ESKURATZEKO
ESKUBIDEAREN
EGIKARITZA

—
2024KO MEMORIA

Aurkibidea

1. Sarrera	2
2. Eskaera kopurua eta kontsultatutako gaiak	2
3. Eskaerak arloka	4
4. Eskaeren izapidetze egoera eta erantzun-epeak	5
5. Eskaerak egiteko eta erantzunak jasotzeko bideak	6
6. Eskaeren hizkuntza	7
7. Eskatzaileei buruz	7

1. Sarrera

Herritarrek 2024ko ekitaldian informazio publikoa eskuratzeko egindako eskaeretatik jasotako datuak aurkeztea da dokumentu honen xedea.

Horretarako, 2024ko urtarrilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra bitartean erregistratutako eskaera guztiak hartu dira kontuan, jatorria eta modalitatea edozein izanda ere.

2. Eskaera kopurua eta kontsultatutako gaiak

Ermuko Udalak informazio publikoa eskuratzeko **27 eskaera** jaso ditu 2024. urtean. Kontsulta-eremuak edo eskatutako gaiak honako hauek izan dira:

Espediente zkia	Eskatutako informazioa
99/2024	Gipuzkoa Etorbideko etxebizitza bateko planoak
631/2024	Jarduera lizentzien inguruko informazioa
901/2024	Kanpoko laguntza eta aholkularitza juridikoa kontratatzeko espedienteak
953/2024	Errebalburuko lokal baten kargei buruzko informazioa
1127/2024	Goienkaleko bere etxebizitzaren planoak
1246/2024	Idesako lursailaren kalifikazioa aldatzeko espediente osoa

1250/2024	Alkatearen hirurtekoei buruzko informazioa
1518/2024	Hirigintza-arloko dokumentuen edo planoen kopiak
1538/2024	2024/02/27an Udalbatzak onartutako lanpostuen aldaketari eta langileen plantillari buruzko espedientearen kopia osoa
1568/2024	Betiondo SSU.02 sektoreko plan partzialaren aldaketa puntualari buruzko administrazio-espedientearen kopia osoa. Zuzkidura-bizitokiak sartzea
1618/2024	2019ko urtarrilaren 1etik 2024ko martxoaren 12ra bitartean udal-plantillako lanpostu guztien ordainsari-aldaketei buruzko espediente guztien kopia
1711/2024	Udalak alkateari ordaindutako dieten eta garraio-, ostatu- eta mantenu-gastuen eta ordezkaritza-gastuen zenbateko xehatua
1754/2024	Haurreskolak 2024 Partzuergoaren Batzar Orokorrari buruzko komunikazioak bidaltzeko harremanetarako datuak
2020/2024	Udaleko lan-absentismoari buruzko datuak
2094/2024	Udaleko edozein udal-zerbitzuko SETURPA SL enpresari aitortutako eta ordaindutako fakturak dituzten espediente guztiei buruzko informazioa
2309/2024	PSOE, EH BILDU, EAJ, PODEMOS eta PPren 2023ko udal hauteskundeetako programei buruzko informazioa
2554/2024	Ermuan erroldatutako biztanle kopurua
2880/2024	2023ko GLLei buruzko informazioa
3745/2024	Errolda-ziurtagiria, etxebizitza batean inor erroldatuta ez dagoela adierazten duena
3878/2024	Kaltxango S.Coop egikaritze-proiektuaren kopia
4014/2024	Zubiaurren eraikitzen ari diren igogailuaren proiektua kontsultatzea
4121/2024	Udaleko edozein udal-zerbitzuko Eco Hotel Doña Mayorri aitortutako eta ordaindutako fakturak dituzten espediente guztiak ezagutzea

4237/2024	Zubiaurren eraikitzen ari diren igogailuaren inguruko informazioa
4300/2024	Udalak taberna bati emandako jarduera-lizentziari buruzko informazioa
4781/2024	Iparragirreraren duen etxebizitzaren planoak
4948/2024	Taberna batek kea kalerantz ateratzeko baimenari buruzko informazioa
5157/2024	xxxx(r)en ondorengo edo familiako baten harremanetarako datuak, gerran xxxrekin trukaturako gutun batzuen kopia emateko

Oharra: dokumentu honetan behar bezala tratatu dira datu pertsonalak identifikatzea edo datu pertsonaletara lotzea ahalbidetzen duen informazioa duten eskaerak, pertsonak beren datuak babesteko duten eskubidea bermatzeko. Horregatik, lerro hauen gainean dagoen taulan, informazioa modu desbertsonalizatuan erakusten da.

3. Eskaerak arloka

Herritarrek Udalarik kontsultak egiteko orduan dituzten interesak bere horretan mantentzen dira azken urteetan, eta 2024an ere, gehien eskatu den informazioa **hirigintza alorrekoa** da: planoak, eraikuntza-proiektuak, lizentziak, lokalak eta abar.

Herritarren Partaidetza eta Gardentasun Saila arduratzen da informazioa eskuratzeko eskaerak jasotzeaz, horien edukia aztertzeaz eta eskaera dagokion arlora bideratzeaz, interesdunari ahalik eta erantzunik egokiena eman diezaion. 2024. urtean, jasotako 27 eskaerak honela banatu dira udal-arloen artean:

Alorra edo saila	Jasotako eskaera kopurua
Abiapuntu	3

Aholkularitza Juridikoa	1
Komunikazioa	1
Kontabilitatea	2
Hirigintzako Diziplina	3
Hezkuntza	1
Zergen kudeaketa	1
Hirigintzako Plangintza	9
Pertsonal alorra	5
Gizarte Zerbitzuak	1

4. Eskaeren izapidetze egoera eta erantzun-epeak

Ermuko Udala herritarren aldetik jasotzen dituen eskaera guztiei erantzuna ematen saiatzen da. Erakundeak aurreko urtean erregistratu dituen 27 eskaeretatik **21 erantzun dira**.

21etik 19 eskarik erantzun positiboa jaso dute eta zehaztutako informazio guztia eskuratu dute. Bati ukatu egin zaio informazioa eskuratzeko eskubidea (2020/2024 espedientea), datu pertsonalak eskatzen baitzituen eta horrek talka egiten baitu Datuak Babesteko Araudi Orokorrarekin, eta beste bati uko egin zaio Udalaren eskumenetik kanpoko informazioa eskatzen zelako (2309/2024 espedientea).

Erantzuteko denborari dagokionez, Administrazio Publikoak legez hilabeteko epea du herritarrei erantzun bat eskaintzeko; epe hori igaro ondoren, erantzunik eman ez bada, kontsulta ezetsizat joko da. Azpimarratzekoa da, informazioa lortzea zaila denean edo bilketa lan handia behar denean, Udalak hilabete bat gehiagoko epea izan dezakeela erantzuna emateko, interesdunari egoeraren berri eman ondoren.

2024. urtean, Ermuko Udalak erantzuteko batez besteko denbora **24 egunekoa** izan da. Ehunekoetan emanda, kontsulten %76,2 legezko hilabeteko epean ebatzi dira.

5. Eskerak egiteko eta erantzunak jasotzeko bideak

Erakundeak hainbat bide eskaintzen ditu informazio publikoa eskuratzeko eskaerak egin ahal izateko. Oro har, eskaera-fitxa bat bete behar da datu pertsonalekin, harremanetan jartzeko modu batekin eta lortu nahi diren datuen xehetasunekin. Ez da beharrezkoa eskaera arrazoitzea, ezta informazioa zertarako eskatzen den adieraztea ere, eta dokumentua hainbat modutan entregatu daiteke:

- Aurrez aurre: Abiapuntu bulegoan, astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara. Eskaera-orria bertan eskuratu, bete eta entregatu daiteke.
- Posta elektronikoz: eskaera-orria behar bezala beteta abiapuntu@udalermua.net helbide elektronikora bidaliz. Udaleko beste arlo batzuetara ere bidali daiteke mezua, baina helbide elektronikoki hori erabiltzea gomendatzen da, Abiapuntuko langileak arduratzen baitira eskaerei erregistroa emateaz eta informazioa eskuratzeko espedientea abian jartzeaz: bertan zentralizatzen da prozesuaren hasiera.
- Egoitza elektronikoaren bitartez: erregistro telematikoak eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan, dokumentuak aurkezteko aukera ematen du. Egoitza identifikatzeko eta izapide ezberdinak burutu ahal izateko, ziurtagiri digitala izan behar da. Behin erregistroan sartuta, bertan osatu daiteke informazio publikoa eskuratzeko eskaera.
- ORVEren bitartez: ORVE Administrazio Publiko guztiei eskaintzen zaien administrazio elektronikoko zerbitzua da hodeian. Horrek herritarrek erregistro-bulegoetan aurkeztu dituzten dokumentuak digitalizatzeko eta helmuga duten helbideetara elektronikoki bidaltzeko aukera ahalbidetzen du. Ermuko Udala izan da zerbitzu hori erabili duen lehen toki-erakundeetako bat, eta, beraz, herritarrek edozein bulegotan entregatu dezakete eskaera, eta udalak berehalakoan jasotzen du jakinarazpena.
- Posta arruntez: ohiko posta zerbitzua erabiliz ere egin daitezke kontsultak. Horretarako, Abiapuntu - Komentukua kalea 3, 48260 Ermua, Bizkaia helbidera bidali beharko da gutuna. Eskaera-fitxa erabiltzea gomendatzen da; Udalaren webgunearen bidez deskarga daiteke.

2024. urtean, informazioa eskuratzeko biderik erabiliena **egoitza elektronikoa** izan da, 17 eskaera telematikorekin. Abiapuntu bulegoko **aurrez aurreko eskariak** 9 izan dira, eta pertsona batek posta elektronikoa aukeratu du bere kontsulta egiteko.

Bestalde, eskaera egiten duen orok Udalaren erantzuna jasotzeko nahiago duen modalitatea ere aukera dezake. Hala, eskaeretan zehaztutako argibideei jarraituz, ekitaldi honetan, eta lehenengo aldiz, eskaera guzti-guztiak **bide elektronikoetatik** erantzun dira: 16 egoitza elektronikoaren bitartez eta 5 posta elektroniko bidez.

6. Eskaeren hizkuntza

Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezartzen duenez, ebazteko ardura duen administrazio publikoa dagoen lurraldeko edozein hizkuntza ofizialetan egin daitezke informazio-eskaerak. 2024. urtean, erregistratutako eskaeren %92,5a **gaztelaniaz** izan dira (27tik 25). Euskara hutsean bi eskaera baino ez ditu jaso erakundeak.

7. Eskatzaileei buruz

Eskatzaileari buruzko datu estatistikoei dagokienez, komeni da gogoraraztea informazioa eska daitekeela, bai pertsona fisiko indibidual gisa, baita elkarte edo erakunde bateko ordezkari gisa ere. Azken kasu horretan, datuak jasotzerakoan, taldearen profilari eustea erabaki da, ordezkariaren sexua kontuan izan gabe.

Beraz, bereizketa horri erreparatuz gero, ikusten da Ermuko Udalari informazioa eskatu dioten gehienak **gizonezkoak** direla (16). 8 emakumek erabili dute zerbitzua, baita 3 enpresak edo bizilagunen komunitatek ere.